

# ERANDION ETXEBIZITZEN PROIEKTUA

VEGA ALTZAGA ETA ANTON FERNANDEZ

## KALITATE-MEMORIA

### 1. ZIMENDUAK

Ikerketa Geoteknikoan eta Exekuzio Proiektuan azpimarratu diren zehaztapenak betez egingo dira zimenduak.

### 2. EGITURA

Eraikinaren egitura hormigoi armatuz gauzatuko da, EKTn xehatutakoekin bat etortzeko.

### 3. ESTALKIA

Estalki lau alderantzikatu, iragazgaizgarria, isolamendu termikoarekin eta beronen mantentze-lanetarako soilik irisgarria proiektatu da.

Atikoan dauden etxebizitzetako terrazai dagokien estalki zatia irisgarria izango da etxebizitzetatik.

Zorrotenak eta erretenak aluminiozkoak izango dira.

### 4. FATXADAK

Fatxadak atzetik aireztatuak izango dira zeramikazko, fibrozementuzko edo harrizko panelen bitartez. Exekuzio-proiektua idazterakoan aztertuko da alderdi hori.

Adreilu termoakustikoaz egindako itxituren lotuta joango da, eta indarrean dagoen legedia betetzeko moduan isolatuko du termikoki nahiz akustikoki.

### 5. ETXEBIZITZEN ARTEKO BANAKETA

Adreilu akustikoaz gauzatuko da banaketa, indarrean dagoen legedia betez.

### 6. ETXEBIZITZEN ETA GUNE KOMUNEN ARTEKO BANAKETA

Adreilu akustikoaz gauzatuko da banaketa, indarrean dagoen legedia betez.

### 7. BARNEKO BANAKETAK

Hormigoizko trenkaden bitartez banatuko dira.

### 8. SABAIAK

Igeltzu ijeltzuzko xaflez egindako sabai faltsuak, pintura plastiko leunezko akaberarekin.

## **9. KANPOKO ALDEKO ZURAJEA**

Block motako aluminioan egindako zurajea, zubi termikoaren hausturarekin, Climalit motako edo antzeko beira bikoitza, indarrean dagoen legedia betez. Altzairuzko xaflazko pertsianak, barruan poliuretanozko isolamenduarekin, eta pertsianen monoblock kutxak, isolamendu termikoarekin.

## **10. BARRUKO ALDEKO ZURAJEA**

Sarrerako ate blindatua segurtasunezko sarrailarekin.

Barruko atea monoblock sisteman, zurezko xaflen akaberarekin, eta helduleku eta burdineria altzairu herdoilezinean. Sukaldeko eta egongelako ateetan beirateekin konbinatuko dira.

Edarrapiak zurezko xaflaztatuarekin.

## **11. ZOLADURAK ETA ESTALDURAK**

Sukalde eta komunetan zoladurak nahiz estaldurak kalitate goreneko zeramikaz egingo dira. Etxebizitzaren gainerako guneeetan kolore zuriko akabera leuna duen pintura plastikoaz.

Terraza eta esekilekuko zoladura material zeramiko ez labaingarriaz.

Etxebizitzaren gainerako guneeetan zoladura parket xaflaztatuaz egingo da, zur noblezko akaberarekin, eta morterozko gainazal altxagarriaren eta inpaktuen aurkako xaflaren gainean kokatuko da.

## **12. ELEKTRIZITATEA**

Gaur egun indarrean dagoen araudiaren eta berau osatzen duten gainerako xedapenen arabera, tentsio baxuko instalazio elektrikoa egingo da.

Bideo-atezaina

Telefono- eta telebista-harguneak araudiaren arabera.

Niessen Serie Zenit edo antzeko mekanismoak.

## **13. KOMUN-ONTZIAK ETA ITURRIAK**

Polipropilenoazko hodi intsonorizatuaz osatutako saneamendu-sarea.

Konketak Roca markako Victoria Compac seriekoak edo antzekoak.

Bidetak Roca markako Victoria Compac seriekoak edo antzekoak.

Komun-ontziak Roca markako Victoria Compac seriekoak edo antzekoak.

Bainu-ontziak Roca markako Contesa seriekoak edo antzekoak, eta bigarren komuneko dutxa-ontziak

Roca markako Easy seriekoak edo antzekoak.

Aginte bakarreko txorrota Roca markakoa edo antzekoa.

## **14. BEROGAILUA ETA UR BERO SANITARIOA**

Gas naturaleko galdara zentralizatua, eguzki-panelak osagarri dituela, berogailurako ur beroa eta ur bero sanitarioa ekoizteko; etxebizitza bakoitzerako banakako kontsumo-kontadoreak.

Etxebizitza bakoitzeko egongelan termostatoa instalatuko da, eta logeletako erradiadoreetan balbula termostatikoak.

Erradiadoreak altzairu lakatuzko xaflazkoak.

## 15. IGOGAILUAK

Atari bakoitzeko igogailu bana.

## 16. GUNE KOMUNAK

### 16.1. Atariak:

Aluminiozko ate nagusia.

Atariko, eskaileretako eta eskailera-buruetako zoladurak granito gris edo antzekoak.

Gune komunen argiztapena presentzia-detektagailuez hornituta gongo da, led teknologiako luminariarekin.

---

---

Zuzendaritza Fakultatiboak eskumen osoa izango du obrak exekutatzen ari direla memoria honetan ageri diren ezaugarrietan egokitzat jotzen dituen aldaketak sartzeko, beti ere araudi berria indarrean jartzeagatik, edota teknikariek, epaileek, merkatuak edo materialen eskuragarritasunak halaberrez inposatu izanagatik, eta aldaketek ez dute inolaz ere kalitatearen maila globalean galerarik eragingo.

Sukaldeak ez daude hornituta, eta etxebizitzetan ez dago horma-armairurik.